

Joseba Usabiaga, aktore lanetan bi hamarkada luze





AURKIBIDEA

Iritzia Beatriz Rubio **3**

Elkarrizketa Barrena eta Carretero,
Sualma egurrezko jostailuez **4-7**

Balerdipetik

Inaxio Arin eta Mattin Jauregi **8**

Asteko Gaia Joseba Usabiaga,

bizitza aktore lanari loturik **10-17**

Begirada Grafikoa Julen Iztueta **19**

PlazanBazan Denbora-pasak **24-25**

Elkarrizketa Mentxu Aiertza eta

Oihana Garaialde Hidden Garden

musika taldeaz **26-29**



Azaleko irudia
Imanol Garcia Landa

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 85€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzaile eta
lana erabiltzaile

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizaletxe **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa eta Zizurkil.



Denbora eta iragankortasuna



**BEATRIZ RUBIO
PERALES**
IRAKASLEA

Nire mesanotxean libururik izan ez dudan egunak gutxi izan direla uste dut. Irakurri nuen lehen liburua gogoan dut: *Kiwi, Lurrun-ontzia* bildumakoa (EGB-koek bakarrik jakingo dute zertaz ari naizen, lasai). Zoriontasun eta harrotasunez salto egin nuen bukatu nuenean, nire lehen liburua! Osorik eta neu bakarrik. Baina ez nengoen bakarrik, nire amonaren etxeko sukaldean nengoen. Negua zen eta kristalek lurruna zuten, amonak makinarekin josten laguntzen zion izebari, ama gona albaintzen. Nire birramona eszenari begira. Lau emakume-belaunaldi elkarrekin. Nire genealogia feminista. Nire lehen liburua amaitzeko lorpena irudi horrekin lotuta doa beti, ahots horiekin, esku horiekin eta ikatz errearen usainarekin.

Gaur Marta Jimenez Serranoren *Los nombres propios* irakurtzen amaitu dut. Mundua, bere burua eta inguratzen dutenak hazi ahala nola deskubritzen dituen kontatzen digu Martak; nor garen eta zergatik garen garena hausnartzera garamatza. Martak ezin dio galdera horiei erantzuteari utzi bere amona omendu gabe. Martak ere bere amona sukaldean gogoratzen du; pentsatzen duena baino gutxiago esanez, ematen duena baino gutxiago jasoz, baina, beti zutik; sendatzen duen besarkada emanez, altxatzen duen eskua luzatzen (eta zolitu egiten duen oihua botatzen!).

Oroitzapenez eta usainez bete zait burua: amonaren erroskillak, amonaren txokolatea txurroekin,

amonaren limoizko entsaladak. Berarentzat berezia nintzela sentitu nuen beti, baina nire anaiak eta nire lehengusuak ere sentitu zuten, hori zen bere beste dohainetako bat: maite zituenak berezi egitea.

Orain, galdu ditudanaren zerrendak egiten hasten hasia naizela, konturatzen naiz bera dela agian galerarik handiena. Gure aitona-amona lurtarrek jainkoen amaigabeko iraunkortasuna dutelakoan hazten ga-

«Oroitzapenez eta usainez bete zait burua: amonaren erroskillak, amonaren txokolatea txurroekin, amonaren limoizko entsaladak. Berarentzat berezia nintzela sentitu nuen beti»

ren arren, haien lezio bakoitza azkena balitz bezala dastatzen dugu. Joango direla jakiteak haien presentzia baloratzera garamatza, galeraren kontzientzia.

Hauskortasuna... lheskortasuna... Iragankortasuna ulertzea eta besarkatzea. Azala eta mamia. Izatearen arintasun jasanezina. Une hau, aukera hau, daukagun bakarra den horretaz jabetzea. Amonak bazekien. Ni konturatzen hasi naiz. Eta zu? Baduzu zereginik? *Tempus fugit*, ez dago aitzakiarik.

«Gure ilusio eta porrotak doaz jostailu bakoitzean, bihotzarekin eginak dira»

MARIA BARRENA ANDRES ETA SUSANA CARRETERO VIERA
ARTISAUAK

Egurrezko jostailuak egiten dituzte duela zazpi urtetik hona. Erritmo naturala eta ingurugiroa errespetatuz, egituratu gabeko jolas askearen alde egiten dute. Bihotzarekin egindako jolastailuak dira Sualmakoak.

Jon Miranda Amasa-Villabona

Sualma tailerrean, Villabonako Larrea kaleko 18. zenbakian, egin dute lan Susana Carreretero Vierak eta Maria Barrena Andresek. Sualma egurrezko jostailuak egiten dituzte. Pribilegiatuak sentitzen dira gus-tuko duten lanean aritu daitezkeelako.

Noiz eta nola sortu zenuten Sualma proiektua?

Maria Barrena Andres: Duela zazpi urte inguru sortu genuen. Bere haurarentzat jostailu bat erostera joan eta Tolosan egurrezko ortzadarra ikusi zuen Susanak. Hor hasi zen guztia. Ez zen erraza horrelako zerbait topatzea hemen eta buruari bueltaka hasi gintzaizkion. Ez zirudien hain zaila horrelako gauza bat egitea. Trago bat hartzen ari ginela elkarrekin komentatu genuen eta ia oharkabean hasi ginen. Guk ez genuen aurretik inolako esperientziarik egurrarekin.

Susana Carretero Viera: Ortzadarrarekin maitemindu eta ikertzen hasi nintzen. Instagramen ikusmiran hasi eta horrelako lanak Alemanian-eta egiten zituztela jakin nuen. Hemengo dendeak zail izaten dute horrelako egurrezko jostailuak eskuratzeko. Guk gure artean pentsatu genuen hemen egurra badagoela, eta ez

zela hain konplikatua izango hori egitea. Estatu mailan beste artisau batzuk badira antzeko lana egiten dutenak eta haiei pixka bat kopiatuz, beste zati batean gure irudimenari eraginez, horrela sortu genuen Sualma. Egurrarekin abilezia bat eskuratu ahala, hasi gara gure gauza propioak sortzen.

Nongo egurra erabiltzen duzue jostailuak egiteko?

Barrena: Gu hutsetik abiatzen gara. Zuhaitza bota ez beste guztia egiten dugu [Barrez].

Carretero: Guretzako garrantzitsua da egurra naturala izatea eta lehortze prozesua ere modu naturalean ematea. Deskubritu genuen egurra lehortzeko prozesu gehienak kimikoak direla eta oso zerrategi gutxi daudela prozesu hori modu naturalean egiten dutenak. Zubietatik ekarri izan dugu egurra eta gaztai-nondoarekin hasi ginen. Lizartzatik ere ekarri izan dugu makala eta oso eskertuta gaude tratuarekin, uneoro egurra nondik zetorren komentatzen zigutelako. Garrantzitsua iruditzen zaigu ezagutza hori. Gero, auzoan erretiratutako arotz batek soberan geratu zitzaion egurra saldu zigun. Egur zoragarria zen:



Ezkerrean Maria Barrena eta eskuinean Susana Carretero Vilabonako Larreako 18. zenbakian duten Sualma tailerraren atarian. **J. M.**

zedroa. Oso gustura ibili gara horrekin, biguna da eta dauzkan usaina eta betak ikusgarriak dira.

Eta nolako da jostailu bat egiteko prozesua?

Carretero: Egurra zurituta eta ohol bezala datorkigu Sualma tailerrera eta hortik aurrera gure esku geratzen da prozesu guztia. Behar dugun neurrira moztu, lixatu, margotu eta argizaria ematen diogu.

Barrena: Argizaria ematea prozesuan sartu dugun azken da. Lehen ez genituen jostailuak babesten. Umeentzako jostailuak direla kontuan hartuta, erabiltzen ditugun pinturak ez dira kutsagarriak. Hurrek ahoan erabiltzen dituzte maiz eta tindua galtzen dute. Nahikoa eskandalagarria gertatzen da. Badirudi argizaria erabilita hori ekin daitekeela. Dena den, ez diegu jostailu guztiei argizari geruza ematen; jostailuak modu naturalean ere ederrak geratzen direla iruditzen zaigu.

Zein jostailu mota sortu dituzue orain arte?

Carretero: Gizakiak beti izan du harremana egurrarekin, egurra ukitu eta usaintzeko beharra sentitu du. Umeek ere horrela egiten dute. Gu biak ama gara eta konturatuta gaude umeek gauzarik sinpleenekin jolasten dutela, kalean topatutako makil, harri edo hostoekin, alegia. Ez dute gehiago behar. Dena den, kalean topatutako gauza horien artean askotan plastikokoak etortzen dira eta etxea zaborrez beteta duzula bukatzen duzu.

Barrena: Pixka bat begiratzuz gero, jabetzen zara jostailuek ez dutela ezer egin behar. Jostailuek geroz eta gehiago egin, orduan eta gehiago moztzen da umeen irudimena.

Carretero: Hasiera batean webguneko katalogorako sailkapen moduko bat egin genuen. Ortzadarrarekin batera, eraikuntzarako jostailuak, oreka mantentze-

IRAGARKI LABURRAK

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik (San Esteban, 20. Tolosa). Iragarki guztiak **iragarkilaburrak.eus**-en.

koak, puzzleak eta bestelakoak bereizi genituen. Baina ondo pentsatzen jarrita, dena nahastu daiteke. Puzzle bateko piezak atera eta eraikuntzarako erabili daitezke.

Barrena: Uste dut helduok burua *zirikirata* daukagula. Gure ortzadarraren ematen diozu haur bati eta hori ikusten dute kanikekin jolasteko

pista bat edo sehaska. «Zertarako balio du honek?», «Nola jolasten da honekin?» galderekin etortzen zaizkigu gurasoak askotan. Guk beti esaten diegu, uzteko umei euren kasa jolasten.

Zein adineko umeentzako dira zuek egiten dituzuen egurrezko jostailuak?

Carretero: Adin ezberdineko umeentzat dauzkagu. Ukimenerako eta heltzeko, miazkatzeko eta horzka egiteko piezak dauzkagu. Ortzadarra, adibidez, 18 hila betetik aurrera gomendatzen dute. Adin horrekin hasi eta mugarik gabe erabili daitezke jostailuak.

Barrena: Eta oraindik esploratzeko daukagun arlo bat da adinekoena. Inoiz izan dugu esperientziaren bat alzheimerre duen pertsonaren batekin. Gogoan dut emakume bat, zeinaren momentuko poza guk egindako egurrezko pinua zen. Uste dut psikomotrizitate lantzeko baliagarriak izan daitezkeela jostailu hauek, adin guztietan gainera.

«Gizakiak beti sentitu du beharra egurra ukitu eta usaintzekoa; umeek berdin»

SUSANA CARRETERO

Zein balio dute zuen jostailuek?

Carretero: Badute, nahi izatera, balio pedagogikoa. Abako moduko bat egiten dugu, adibidez, eraikuntzarako erabili daitekeena, baina matematika lantzeko ere balio dezakeena. Etekin atera nahi dionak atera diezaioke.

Barrena: Nire iritzia da helduon pa-perak gehiago izan behar duela akonpainamendua-rena bideratzailearena baino. Iniziatiba umeek eraman dezatela eta ondoan dagoenak segi diezaiola umeak egiten duenari.

Horretarako daukazue Sualmateka.

Carretero: Bai. Azokatarra joaten garenean alfonbra moduko bat jartzen dugu lurrean eta han jostailuak uzten ditugu umeek jolastu dezaten. Sualmateka da. Oso ondo funtzionatzen du.

Zuek diseinatzen dituzue zuen jostailuak?

Carretero: Bai. Baina badira beste lekuren batean ikusi eta kopiatzen ditugunak. Oso irekita gaude. Eta egiten dizkiguten proposamenak asmo onez jasotzen ditugu. Berehala kutsatzen gara. Orain, txalaparta bat egingo ote genukeen galdetu digute. Ez dugu sekula egin, baina ausartuko gara. Saiatu eta zer edo zer aterako da.

Barrena: Orain gauza berri bat proposatu digute inoiz

ATARIArri jarrita Goierri
eta Urrola Kostako
Hitza egunkarietan toan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
 Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
 Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
 Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:00ak arte hartzen ditugu.

egin ez duguna, *tupper toy* deitzen diote. Jostailuak probatu eta erakusteko bilkura bat izaten da. Iruratik hots egin digute eta probatuko dugu ea zer moduz ateratzen den.

Behin sortuta, nola saldu edo zabaltzen dituzue zuen jostailuak?

Carretero: Lortu dugu *stock* bat edukitzea, pieza batzuk baditugu oinarri gisa. Gehien funtzionatu dituen horiek errepikatu ditugu.

Barrena: Enkarguz ere egiten dugu lan.

Carretero: Gehienbat azoketan saltzen dugu, hona tailerrera ere gerturatzen zaigu eroslea eta webgunean katalogoa badugu.

Barrena: Beasaingo denda batean ere hartzen zizkiguten jostailuak. Baina pandemiaren ondorioz itxi egin behar izan dute. Horrek guregan ere eragina izan du.

Garai errazak dira artisauentzat?

Barrena: Ez oso. Batez ere pasa dena pasa ondoren. Jostailu bat erostea ez da lehentasunezko gastu bat. Eguberrietarako edota urtebetetzetarako kontua izaten da gehienbat. Pixka bat kostatzen ari zaigu, baina ilusioa dugu, gogoia ere bai, gure gastuak estaltzen ditugu eta ahal den bitartean eutsiko diogu.

Carretero: Nik sinesten dut proiektu honetan.

Barrena: Burokrazia handia eskatzen digute, ordea, eta hori ez da gure mesederako. Orain TicketBai delakoa jarri beharko dugu. Berez artisautza erraza ez bada, aurrera jarraitzeko traba baino ez digute jartzen.

Garrantzitsua da zuentzat babes sare bat edukitzea?

Barrena: Bai. Umeak dauzkagu eta asteburu batean bai eta bestean



ere bai azoketara joan behar baduzu, ezin dituzu beti zurekin eramane.

Carretero: Ez da bakarrik familia antolaketari begiratuta. Guran sinesten dutela jakitea garrantzitsua da, sostengua emango dizun babes sare bat beharrezkoa da.

Beste hainbat artisauarekin elkarlan bat abiatu duzue Amasa-Villabonan.

Carretero: Bai. Hori guretzako ikaragarritzakoa izan da. Elkarrekin boteretsuak gara iruditzen zait. Gu biok elkarrekin gure lana egiten dugu, baina askotariko eskaintza batekin zoazenean oraindik eta

hobea da. Esaterako, Eguberrietan Rotetan jarri genuen denda edota EtxeondoFest bezalako ekimenek funtzionatu dute.

Barrena: Besteen anparoan hazi egiten gara. Topatu ditugu oso buruargiak diren lankideak, eurekin batera eramaten zaituztenak. Zoragarria izan da elkar topo egin izana.

Eskuz egiten den lana baloratzen al da gizartean?

Barrena: Oro har bai. Azoketan gerturatzen zaigun jendeak esaten digu gure lanak asko gustatzen zaizkiola. Horrekin ez dugu bizibiderik aterako, baina balorazio horrek asebetetzen gaitu.

Carretero: Kosta egin zaigu gure lanari prezio bat jartzea. Badakigu gauzak ondo egiten ditugula eta politak direla gure jostailuak. Baina nola baloratu ekono-

mikoki hori guztia? Hemen pasatzen ditugun ordu guztiak ezin dira kontabilizatu. Artisau lanak beti dira garestiak, eskuz egindakoak direlako, eta bakarrik direlako. Errepikaezinak. Gure ilusioak eta porrotak doaz jostailu bakoitzean, bihotzarekin egindakoak dira.

«Jostailuek geroz eta gehiago egin, orduan eta gehiago mozten da umeen irudimena»

MARIA BARRENA



Gerrateak pozoitutako lurrean

Helikopteroa diruditen liztorrak entzuten ditut noizbehinka erlategian; handikieriaz, erlauntza atarira aurkezten dira erleen aurka, beraien tamaina eta gorputz indartsuarekin. Baina ez da bi espezieen arteko gerra; liztor beltza da gerra bila dabilena berea ez den lurraldea konkistatu nahian, erleak egunerokotasunean arazorik izango ez balu bezala, presionatuz.

Goizean lorez lore abiatzen den erlea etxera iristerako akabatzen dute liztorrek. Jada pasa dira urte batzuk gerratea hasi zela, liztorrek erlearen bizitza oztopatzen dutela... Erlezainok, lagundu nahi izanagatik ere, ez dugu deus egiterik gerrate hau gelditzeko.

Izurriteena ez da gai berria, egun asko pasatakoak baikara gure etxetako horma artean konfinaturik. Erleen kasuan ere badituzte izurriteak, eta baita itxialdiak ere. COVID-ik ez, *barroa* izeneko parasito bat da erlea ahultzen duena, erlauntzeko biztanle guztiei eraginez. Horri aurre egiteko, erregina espetxeratu behar izaten dugu, preso utziz, arrautzarik errun ez dezan. Akaroak ez du etorkizuneko erlerik topatuko bertan, ugaltu ahal izateko.

Gainontzeko erleak *barroa*-ren aurka tratamendu bidez -txertoa- desinfektatu beste aukerarik ez dagoela ikasi dugun arren, badaude naturalki izurriteari aurre egiteko moduak garatu dituzten erleak. Hor dugu erlezainok erlezain lana, erlea zainduz izurriteen gerratean.

Gurean, bertako erle euskaldun beltza da langilea, baina badira erlauntza eta erlategi asko beste herrialde batzuetako erleekin nahastuak. Zergatik nahastu

diren gure erleak beste arrazekin? Interesagatik. Arraza nahasketek errendimendu handiagoa ekarriko zutela uste zen; baina denborak erakutsi digunez, bertakoa bezain erle langile eta osasuntsurik ez dago, bertan sortutako arraza delako.

Erleen errendimendua handitze aldera ekarri zituzten handiuste horien erruz, bertan ditugu beste herrialdeetako erleak; eta hori da oraingo gerratea: gure erle beltza beste herrialdeetako erleekin nahasteak, bertako arrazaren galera ekar bailezake.

Argi geratu da gizakion interesa arazo handi bilakatu dela naturarentzat; interes ekonomikoa bereziki. Zenbat artasoro berde azken urte hauetan, edo eta zenbat hazkunde azkarreko landare... Jakingo bagenu



zer kalte ekartzen dion horrek gure amalurrari! Interes horrek beste arazo asko dakartza katean erantsirik. Pestizidak nahiz ongarri kimikoak monolaborantza horiek indartzeko erabiltzen dira, eta gure lurra pozoitu dugu. Bertatik elikatzen gara, baita erleak ere.

Gerrateak pozoitutako lurrean erleak hiltzen ari dira, gu ere agian?



**IDOIA
APAOLAZA**
PSIKOPEDAGOGOA

Ikasketen zama familia giroan

Seme-alaba batzuk ikasle onak izaten dira, errazak esango genuke. Arduratsuak dira; ikasten dute, gainditzen dute eta badoaz ikasturtez ikasturtez beraien ibilbidea egiten. Beraien burua ikasle ontzak daukate eta unibertsitate mailako ikasketak egitea edukitzen dute buruan. Irakasleekin harreman ona edukitzen dute; bai ikasleak eta baita gurasoek ere. Beraz, ikasketak prozesu naturalak dira, familiak erraz gainditzen dituenak.

Baina denok dakigun bezala, ikasleriaren zati bat ez da ikasketekin ongi moldatzen. Kosta egiten zaie gelan adi egotea, lanekin arduratsuak izatea, ikasketa-zailtasunak dituzte kasu batzuetan –dislexia, hiperaktibitatea, arreta gabezia– eta eskolara joatea pisutsua egiten zaie. Kasu hauetan, ikasle eta irakasleen arteko harremana batzuetan ez da ona izaten eta familia eta irakasleriaren artean harremana tirabiratsua izaten da zenbait momentutan.

Kasu hauetan, bai seme edo alabarentzat zein gurasoentzat eskola eta ikasturtea luzea eta astuna izaten da. Gutxitan iristen dira berri onak eta frustrazioa eta motibazioa galtzea oso presente egoten dira.

Denok dakigun bezala, ikasketak amaitu egiten dira. Zorionez zama amaitu egiten da seme-alaba hauek lan munduan sartzen direnean. Tamalez, familia hauek eta seme-alaba hauek bizipen ezkorrek edukiko dituzte eskolarekiko eta baita ikasketekiko ere. Honek, aurrera begira beraien formazioa eta baita lan munduan aurrera egitea oztopa dezake. Beraz, ezinbestekoa bilakatzen da familia hauek zaintzea eskola garaian. Zaintzea diodanean, irakasleagoak ikasle hauen beharrak identifikatu eta lantzeaz ari naiz, begirada zaintzea, honen baitan egongo baita ikaslearen autoestimua eta baita familiaren autoestimua ere.

Familia aldetik, ezinbestekoa da seme-alaben ikasketa prozesuan gainean egotea eta harremanetan egotea tutore zein irakasleekin. Nahiz eta jakin badaigun ikasturteak lan asko eta sari gutxi ekartzen dizkiela familia hauei galdera honekin amaitu nahiko nuke: gure seme-alabei laguntzea baino gauza hoberik ba al dago?



«Kotxeek
bezala,
aktoreok
azterketa
teknikoa
pasa behar
dugu
urtero»



JOSEBA USABIAGA AMONDARAIN
AKTOREA

Hemeretzi urte zituela hasi zen aktore lanak egiten
'Goenkale' telesailean, eta ordudanik ez da geratu.
Hogei urte baino gehiago daramatza interpretazioaren munduan
tolosarrak eta aurrera begira lan horretan jarraitu nahiko luke.



Imanol García Landa

Joseba Usabiagaren (Tolosa, 1981) azken lan nagusia *El Vasco* pelikula izan da, baina egunerokotasunean Gure Zirkua da bere oinarria.

Azken lanetik hasiko gara, 'El Vasco' pelikulatik. Zer moduzko harrera izaten ari da?

Ona, espero genuena. Bagenekien zer egiten ari gi-

nen. Argentinan geundenean banekien komedia bat zela. Ez da superproduktzio bat, baina ondo egindako lan bat da, ondo zaindutako planoak daude, eta ondo kontatutako istorio bat. Hortik abiatuta, uste dut emaitza ona izan dela, eta espero genuen eta nahi genuen erantzuna jaso da.

Kritikei kasurik egiten diezu?

Ez diet kasurik egiten, ez onei ezta txarrei ere. Hori aspaldi ikasi nuen, dena erlatibizatu egin behar da. Hitz politak normalean asko ez dira egiak izaten; «oso lan ona» eta horrelakoak. Eta kritika txarrak normalean beste perspektiba batetik etortzen dira. Kritika egin behar duenak egiten du, baina ez du ezer horren kontra; kritika egiten du, askotan egiteagatik. Zer edo zer txarra jartzearen eta eduki pixka bat izatearren, gaur kritika txarra egingo duela erabakitzen du, baina egin behar duelako, ez hori pentsatzen duelako. Hori kaze-tari batek aspaldi esan zidan eta egia da.

Oraindik ikusi ez dutenei, nola 'salduko' zenieke?

Hemen inguruan pelikulak egin du bere bidea. Hiru astez egon zen herri gehienetan, eta gero beste pelikula batzuk sartzen dira karteldegian. Pandemiarekin-eta pelikula asko atzeratuta zeuden eta astero hamabost-hogei pelikula sartzen dira. Ordu eta erdiko une atsegin bat pasa nahi duenak horretarako aukera du *El Vasco* pelikularekin. Gainera, diasporaren inguruan hitz egiten du, memoria historikoaz ere hitz egiten du, nola belaunaldiz belaunaldi gure kulturak gauza asko mantentzen dituen hemendik kanpora, baina beste batzuk galdu egiten diren, eta galdu egingo direla. Eta hori dena memoria galtzen duen pertsona baten bitartez kontatzen da, Itziar Aizpuruk jorratzen duen rolaekin. Ingurukoek esan didatena da momentu atsegin bat pasa dutela, hunkitu egin direla, barre egin dutela, eta azken finean hori zen helburua. Eta hor nonbait topatzen baduzu, ikusi ezazu, ez zarelako damutuko.

Kritika batean irakurri dut, pantaila berde gutxiago behar direla; hau da, efektu berezirik gabeko pelikula gehiago, 'El Vasco' bezalako pelikula gehiago. Egia da oraindik arrakasta dutenak pantaila berdeak

«Nire bizitzan antsietate gehien izan dudana garaia 'Handia' grabatzen izan zen»

erabiltzen dituztenak direla, Ameriketako Estatu Batuetan-edo egiten direnak; arrakasta gehiago dute gurea bezalako pelikula xumeak baino.

Handia pelikula *El Vasco* baino hiru aldiz gehiago kostatu zen: ia lau mi-

lilioi euro eta honek 1,3 milioi euro. Horrek zer esan nahi du? Ba efekturik ez duela, askoz sinpleagoa dela, planoak ondo zaindutakoak direla... Dirua azkenean efektuetan joaten da, soinuan, arropetan joaten da, eta garai batekoa bada zer esanik ez, zaldiak, tiroak... Hor joaten da dirua. Guk orain egin dugun pelikula askoz xumeagoa da, eta erantzuna nahiz eta ona izan, eta jendeak esan, hau ere behar dugu, arrakasta dutenak oraindik kanpotik datozenak dira.

Zer izan du pelikula honek berezia aurrekoekin alderatuta?

Pare bat ezberdintasun izan ditu. Nagusiena etxetik kanpo, Argentinan, bi hilabetez egon behar izan nuela. Eta etxetik kanpo grabatzea beti ere gogorragoa da. Egun libreak ere han pasa behar dituzu, eta hemen bazaude, etxean pasatzen dituzu eta lotara etxera joaten zara. Etxetik urrun egotearen nostalgia hori sumatu dugu, bai nik, bai zuzendariak eta baita Euskal Herritik joan ziren besteak ere. Bestalde, presio gutxiago sentitu dut *Handia* pelikulan baino. Nire bizitzan antsietate gehien izan dudana garaia *Handia* grabatzen izan zen. Lo hartzeko Lorazepan egunero hartzen nuen. Estres handia sentitu nuen, presio handia, eta orain ez dut hori sentitu. Agian urte batzuk pasa direlako, eta beste patxada batekin hartzen dudalako. Zu protagonista zara eta zuri zerbait gertatzen bazaizu, lantalde handi bat erori egiten da zure erruz. Ahotza joaten bazait edo istripu bat izan eta eskaileratik behera erortzen banaiz eta hanka hautsi, filmaketa erori egiten da. Presio hori dena zure gain hartzen duzu, eta *Handia* pelikulan horrela egin nuen.

Zinemaldia bizitzeko aukera izan duzu, beste behin.

Aurtengoan jolas moduan hartu dut. Hiru-lau aldiz egon naiz Zinemaldian, atal ezberdinetan. Atal ofizialean *Handia* pelikularekin, *Pikadero*-rekin zuzendari

berrien atalean, eta orain Zinemiran. Atal ezberdinak dira eta aurten, bai zuzendariak eta bai beste guztiok ere esaten genuen ondo pasatzeko geundela. Aurten ez dut inolako presiorik izan. Jolas bat eta

opari bat bezala hartu dut. Aktore moduan, gehiegizko arreata izaten dugu, alfonbra gorria jarri digute bertatik pasatzeko, eta ez dakit zergatik; festetara gonbidatu gaituzte, eta ez dakit zergatik. Ni hortik atera eta hurrengo egunean Gure Zirkuan nago, lokatzetan, eta zeure buruari esaten diozu errealitatea eguneroko hori dela, eta ez bestea.

Tolosan eta Villabonan izan zara, pelikula ikusi ondoren zinemazaleekin solasaldian. Zer-nolako esperientzia izaten da hori?

Lan bat egiten dugunean nahi izaten duzu jendeak lan hori ikustea. Eta jendea areto batera joaten bada, errespetuz, jende hori ondo tratatu beharra dago; eta niri esaten badidate ea joango ote naizen Tolosara pelikula aurkeztera, edo Villabonara, edo beste herri batera, ahal dudana heinean joango naiz. Beste sentsazio bat da, askoz ere gertuagokoa. Hemen, Tolosan, herriko eta inguruko jende asko ikusi nuen, eta haiekin partekatu nuen pantaila handian ikusi zutena, grabaketa nolakoa izan zen, zein azaltzen den pelikulan... Jendeak eskertzen du eta ni oso pozik joaten naiz.

Kritikekin alderatuz, jendeak bertan esaten dizuna gehiago hartzen duzu kontuan?

Bai, noski. Zinemaldian estreinaldia ikaragarri ona izan zen, sekulako erantzuna, baina informazio hori erlatibizatu behar izaten da. Jendea oso alde dago, predisposizio oso onarekin, eta Tolosara etortzen zarenan, lagunak eta ingurukoak beste predisposizio batekin etortzen dira. Kritika txarrak ere berdin hartu behar dira. Jarreraren arabera asko aldatzen da pertzepzioa, eta horregatik diot, pelikula aldeko jarrera-ekin joaten bazara, ondo pasako duzula.

Zer bide geratzen zaio orain 'El Vasco' pelikulari? Argentinan eskaini dute?

Ez, Argentinan ez da eman, eta hurrengo urtera arte


ez da emango. Ez dakit otsailean edo martxoan izango den, hori banatzailearen arabera izango da. Eta hemengo ibilbidea bukatzen denean, oraindik zenbait herri falta direlako, ziur aski plataforma batera joango dela. Gaur egun, hobe da kaxoi batean izatea baino plataforma bati uztea monetizatzeko. Hor egon dadila jendeak ikus dezan; mila pertsonak ikusten badute hobe da zerok ikustea baino.

Komedia dramatiko bezala definitu duzu.

Bai. Gidoian komediagoa ematen zuen, baina gero grabatzen ari ginen heinean ikusi nuen zuzendariak drama puntu bat gehitu nahi ziola, batez ere bukaera aldean. Behin pantaila handian ikusi dudanean, % 50ean komedia dela. Aurreneko erdia komedia da eta beste erdiak drama aldetik jotzen du gehiago. Beraz, jendeak barre egiten du eta hunkitu egiten da.

Pelikuletan batez ere drama generoan aritu zara, baina alde komikotik egin zinen ezaguna.

Azkenaldian pantaila handian egin dudana dramatiko du gehiago. Egia da zirkuan egiten duguna komedia dela, eta alde horretatik oreka badago. Aktore bezala hasierako hamaika urteak *Goenkale*-ko Tximista pertsonaia izan nintzen, eta tartean helduentzat antzerkia egiten nuen Iker Galartzarekin: *Erreleboa*, *Bota patsa*, *Ate joka*, *Hil arte bizi*... Horiek denak komediak ziren, komedia eroak gainera. Beraz, dena komedia egiten nuen, 2015a arte. Hor *Pikadero* eskaini zidaten eta bertan ikasi nuen kodea aldatzen. Izan ere, kode ezberdinak dira komedia eta drama. Eta film hori grabatzen eman nituen bi hilabeteak oso ondo etorri zitzaizkidan beste erregistro batzuetan lan egin ahal izateko. Gero *Handia* etorri zen, eta hori bai zela benetako drama. Eta hor ere eroso sentitzen naiz. Drama egitea askoz zuhurragoa da, askoz baxuagoa.



Oso gutxi egin behar da, eta hor ere eroso sentitzen naiz. Azkeneko honetan, nahiz eta komedia izan, nik ez dut komedia egiten; Eduardo Blancok egiten du komedia gehiena, eta nik behaketa komedia esaten zaiona egiten dut. Aktore asko sailkatu egiten dituzte edo komedian edo draman, eta nik zortez bi esparruak asko ukitu ditut.

Zer da zailagoa, komedia edo drama egitea?

Komedia zailagoa da eta askoz ere arriskutsuagoa. Pelikula dramatiko bat egin nahi baduzu, eta plano bat jartzen baduzu amona bat edo ume bat negarrez, askoz errazagoa da jendea ukitzea pantaila handian. Komedia batean jendea barre eginaraztea ez da erraza eta barregarri geratzeko arriskua du. Pelikula txar gehienak komedia egin nahi izan zutenak dira. Draman ez da hainbeste gertatzen.

Ikasketarik ez duzu egin aktore bezala. Zenbat urtekin hasi zinen *Goenkale*-n Tximistaren paperean?

Hemeretzi urterekin hasi nintzen. Aurretik, hamazaz-



Ezkerretik hasita, 'Bota patsa' antzezlan, 'Hil arte bizi' antzezlan, 'Handia' pelikularen grabaketa eta 'El Vasco' pelikularen fotograma bat.

pi urte nituela, Poxpolo eta Konpainiarekin hasi nintzen. Iker Galartza, Iñaki Odriozola zena, eta beste lagun batzuk hasi ginen. Eskola berean geunden, Eskolapioetan. Areto nagusi bat zuten eta urtero Gabonetako antzerkia antolatzen zen eta guk izena ematen genuen. Hasieran Ikerrek eta Iñakik egin zuten Poxpolo eta Mokolo, eta ni eta besteren bat haiekin batera esketxak egiten genituen. Nik hamasei urte eta haiek hemezortzi-hemeretzi zituzten. Horrela abiatu ginen, hasieran Eskolapioetan eta gero ondoko eskolara joaten ginen, eta pixkana herriz herri joaten ginen. Gero, hemeretzi urterekin *Goenkale*-ko hautaprobea batera aurkeztu nintzen eta hor hamaika urte egin nituen. Egun 41 urte ditut eta zortez honetan jarraitzen dut.

Ez duzu izan gogorik aktore ikasketaren bat egiteko?

Gogoa ikaragarri, baina zortez egunean lau-bost ordu klasera joateko ez dut denborarik izan. Gogoa bai, ikusten dudalako ikasten dutenek nik ez dudan teknika dutela. Urteen poderioz teknika asko ikasi egin behar izan ditut, baina nire kasa, irakurtzen edo ikasi duen jendeak niri esplikatuz. *Goenkale*-n, hamaika urtetan, egunero eginez ikasten nuen. Zortez ez zait lanik falta izan, eta ez dut uste adinik dudarik eskola batean sartzeko.

Praktikatuz ikasi duzu; seinale ona da lana izaten jarraitzea.

Bai, eta ea hemendik bost urtera horrela jarraitzen dugun. Guk, kotxeek bezala, urtero pasatzen dugu azterketa tekniko: urte hau ondo joan bada, ba beste urte bat jarraituko dugu. Bi urte txar ateraz gero, beste zerbait pentsatzen hasi beharko dut. Zortez, ez zait hori pasa.

Telebistan lan egiteko eskaintzarik iristen zaizu?

La linea invisible eta *El internado* telesailetan agentearen bitartez izan zen. Aktore gehienok agenteekin lan egiten dugu, batzuk Euskal Herri mailan, eta beste batzuk Espainian. Nik badut Espainian agente bat; bere garaian neure burua aurkeztu nion, baietz esan zidan, eta berak pixka bat mugitu egiten zaitu. Telesail horien hautaprobetara joateko berak abisatu zidan, aukera izan nuen, eta joan egin nintzen. Oso zaila da Espainian zuzendari batek zuri zuzenean deitzea; hemen Euskal Herrian gehiago gertatzen da hori, denak ezagutzen baikara. Hemendik kanpo ez.

Musika ere landu duzu, Konbenio del Metal taldearekin. Proiektu hori bukatu da?

Ez, ez da bukatu. Asteazkenero elkartzen gara, soinu pixka bat egiteko. Pandemiarekin bai gu eta bai denak geratu egin ginen, baina orain asteazkenero elkartzen gara. Lagun talde bat gara, eta ez dugu baztertzen Gabonetan edo inauterien inguruan berriro instrumentuak ateratzea lokaletik eta jendearen aurrean jotzea 40-45 minutuko erreperitorioa. Ez gara onak, ni ez naiz abeslari ona, eta besteak ere beraien



instrumentuekin ez dira onak. Baina denok ondo pasatzen dugu eta gure onena ematen dugu.

Kirola ere egin izan duzu, besteak beste, mendi lasterketetan parte hartzen.

Bai, baina zahartuta nago. Donostiako maratoia ari nintzen prestatzen, baina lesio bat izan dut, eta gorputzak esan dit gelditzeko. Kirola gustatzen zait eta egingo dut. Mendi lasterketak urtero bi edo hiru egiten ditut, zirkua ez didalako denbora asko uzten. Zirkua asteburuetan izan ohi da eta ez dit uzten lasterketetan parte hartzen. Gustatzen zait gorputza prestatzea, baina 40 urtetik gora ditut eta nabaritzen da ez ditudala 25.

Kirol egiteaz gain, T3T mendi lasterketaren antolakuntza taldean zaude.

2015ean sortu zen, eta orduan buru-belarri aritzen ginen mendi lasterketak egiten. Hor aritzen ginen lagunak lasterketatxo bat antolatzea pentsatu genuen, inguruko hiru mendi nagusienak hartzen zituen ibilbide bat eginez. Pixkana hazten joan zen, eta beste lasterketa bat antolatu genuen bi mendirekin. Gaur egun 800 lasterkari ateratzen dira urtero, eta arrakasta nahiko handia du. Hasierako zortzi pertsonak jarraitzen dugu antolatzen, eta zortez ondo doakigu.

Gure Zirkua atera da hainbatetan elkarrizketan. Hori da zure egiteko nagusia?

Oinarria bai behintzat. Hori da egunerokoan jaten ematen diguna. Lan gogorra da, muntaia eta des-

muntatzea daudelako, emanaldiak... Ezin duzu afari bat egin larunbat batean, ezin planik egin. Gogorra da, baina ikasi egin behar duzu bizitza egiten astean zehar. Oinarria zirkua da, eta gero egin ditzaket *El Vasco* bezalako pelikulak. Oso harro nago proiektu horretaz, eta *Handia* ere egin nuen zirkua martxan zegoela. Egin ditut eta parte hartuko dut beste proiektu batzuetan ahal badut. Ez nik bakarrik, Ikerrek [Galartza] eta Ekainek [Ibarguren] ere aktore lanetan beste lan batzuk egiten dituzte. Ikerrek *Irabazi arte* egin du azkenaldian. Saiatzen gara beste gauza batzuk egiten, ona baita beste pertsona batzuekin lan egitea.

Iker Galartza ondoan izan duzu zure ibilbidean.

Bai, hasi ginetik. Nik Iker ezagutzen dut hamar urte nituenetik, baina lanean nik hamasei urte nituela eta berak hogeitazituela. Elkarrekin jarraitzen dugu hogeita bost urte geroago eta beste hogeita bost urte jarraitzen baditugu, erretiroa hartuta egongo gara. Zortez ondo konpondu izan gara, eta oso gutxitan eztabaidatu dugu. Biok badakigu zer nahi dugun, eta antzerkia egiteko gure modua oso antzekoa da. Esketxak prestatzeko garaian ez dugu asko eztabaidatzen. Oso enpatikoak gara biok: nik ulertzen dut berak beste gauza batzuk egin nahi izatea eta berak ulertzen du ere nik beste gauza batzuk egitea; ez daukagu inolako inbidia.

Nondik dator Gure Zirkuaaren arrakasta?

Hasiera hartan jendeak ziurgabetasun asko zituen. Funtzionatu zezakeela bagenekien: gu Poxpolo eta Konpainiatik gentozen eta plazan egiten genuena karpa batean egingo genuen, beste diziplina batzuekin eta musika zuzenean. Zirkua da, azkenean ordu



eta erdiko zuzeneko ikuskizun on bat da, baina ez dira bakarrik zirkuko diziplinak ikusten. Magia ona ikusten da, esketx onak ikusten dira, musika oso ona zuzenean... Eta arrakasta izan du hori dena duelako, eta jendeak ahoz aho asko zabaldu duelako. Hasieran jendeak pentsatzen zuen umeentzat zela, baina gero eta heldu gehiago etortzen dira, gero eta kuadrilla gehiago, badakitelako hori ez dela umeentzat soilik. Are eta gehiago, uste dut orokortasunean helduei zuzendua-

«Ni pribilegiatua sentitzen naiz; ehuneko ehuneko oso jende gutxi bizi da honetatik»

goa dagoela. Umeek esketxak asko disfrutatzen dituzte, baina airezko eta indarrezko ariketak heldu batek askoz gehiago disfrutatzen ditu.

Urte askotarako proiektua da?

Bukaera ez diogu jarri eta ez diogu jarri nahi. Jendeak du azkeneko hitza. Gu saiatuko gara jendea karpara eramaten. Zortez, jendeak erantzuten du; aurtengo ia ekitaldi eta emanaldi guztiak bete egin ditugu, eta azken hiru hilabeteetako sarrerak agortu egin dira. Jendeak erantzuten duen heinean jarraituko dugu.

Proiektu berririk baduzu?

Aterako da zerbait 2023an. Ez dugu ezer itxita, baina *El Vasco* grabatu baino hiru hilabete lehenago berdina galdetu izan bazenidan berdina erantzungo nizun. Sinatuta badut ere, ez dut ezer esaten. Halere, 2023an ia ziur nago ez dudala pelikularik egingo, ez dudala telesailik egingo eta zirkuan seriozki murgilduko naizela.

Zer esango zenioke aktore izan nahi duen gazte bati?

Jendea hurbiltzen zait hori galdetuz, eta nik denei esaten diet hau ez dela erraza. Ni pribilegiatu bat sentitzen naiz. Ehuneko ehuneko oso jende gutxi bizi da honetatik. Hasi nahi duen norbaiti esango nioke aurrena ikasteko. Hemen inguruan badaude eskolak, ez duzu zertan Madrilera joan. Hasi antzerkia egiten eta ea konpentsatzen dizun esfortzu horrek. Guk zenbat urte pasa ote genituen hamazazpi eta hemezortzi urterekin herrietara joan, eta muntatzen eta desmuntatzen arituz. Pixkanaka hasten zoaz, baina hasiera guztiak gogorak dira. Nik orain 41 urte ditut, eta lehen esan bezala, azterketa teknikoa urtero pasa behar dut.

Egia da koltxoi bat badugula, baina bi urtetan zirkua bukatzen bada, eta antzerkirik edo telesailik ez bazait ateratzen, beste zerbait pentsatu beharko dut. Eta etorkizunean harrotasunez hitz egingo nuke: ni 42 urtera arte aktore izan nintzen eta orain tailer batean egiten dut lan.

Motzean...

Zinema, telebista edo antzerkia?

Hori ez galdetu, ama edo aita nahiago duzun galdetzea bezalakoa da. Ezpata eta pareta artean egongo banintz, antzerkia esan dezaket, baina hori ere bada gogorrena.

Antzerkian harreman zuzena duzu ikus-entzuleekin.

Erantzuna berehalakoa da, ez dizu alferkeriarik ematen egitea, eta zinema eta telebista grabatzea batzuetan aspergarria da. Baina gero pelikularen emaitza politagoa da. Bakoitzak bere alde onak eta txarrak ditu.

Drama ala komedia?

Komedia, baina arriskutsuagoa da. Halere, komedia on bat egitea gustuko dut beti.

Aktore bat?

Asko daude eta erreferente bezala ditudanak badaude. Euskal Herrian asko daude, baina Euskal Herritik kanpo Brad Pitt eta Casey Affleck aktoreek egiten dutena oso kontuan hartzen dut. Begiradak eta espresioak asko imitatu izan ditut. *Handia* eta *El Vasco* pelikuletan erabilitako espresio asko aktore horietatik kopiatutakoak dira.

Telesail bat?

El principe de Bel Air. Ez dakit zenbat aldiz ikusi izan ditudan telesail horien kapituluak. Azkenaldian ez naiz oso telesail zalea.

Pelikula bat?

Oso klasikoa da esatea, baina *El Padrino*.

Antzezlan bat?

Asko daude onak iruditu zaizkidanak. Gaztea nintzenean, *Ama begira zazu* ikusi nuen, eta ikaragarria iruditu zitzaidan. Hor hasi nintzen esaten: nik hori egin nahi dut. Inflexio puntu bat izan zen, gero VHS formatuan atera zuten eta askotan ikusten nuen. *Kutxidazu bidea* *Ixabel* ikusi nuen ere gaztea nintzenean eta asko gustatu zitzaidan. Azken honekin ere esaten nuen nik hori egin nahi nuela.

Zeri ematen diozu garrantzia zerbait lehen aldiz ikusten duzunean?

Pertsonaiei eta transmititzen duten horri. Ez du zertan komedia edo drama izan behar.

Pertsonaia oso fisikoak asko gustatzen zaizkit, baina ni ez naiz gai ikusten hori egiteko. Teknika behar da eta ni ez naiz gai adibidez Eneko Sagardoik egiten dituen pertsonaia horiek egiteko. Eraldatu egiten da eta teknika handia du espresioak azkar aldatzeko. Nik horrelako pertsonaia bat ikusten dudanean, ona dela esaten dut.

Zer falta zaizu egiteko?

Baina ez dut-eta ezer egin oraindik! Hiru-lau gauza bakarrik egin ditut. Milaka gauza gustatuko litzaidake egitea. Produkzio handiko pelikula batean parte hartzea gustatuko litzaidake, baina ez dut horrelakoetan parte hartuko. Musikalak beti gustatu izan zaizkit, nahiz nik ez dudan oso ondo abesten. Zortez oso proiektu politetan parte hartu izan dut, eta zuzendari oso onak ezagutzen ditut, eta eskua eman izan didate, eta noizbait horiekin lan egin nahiko nuke baina ez dut behin ere egingo, bere esku ez daudelako erabaki horiek. Juan Antonio Bayona eta Pedro Almodovar ezagutu ditut, zoriondu naute, baina badakit ez dudala beraiekin lan egingo.

Eta zergatik uste duzu hori?

Ez dut erabateko ziurtasunik, baina pertzepzio bat da. Zu bezalako mila aktore daudelako, eta hobeak.

Ez dugu horrela bukatuko elkarriketa...

Nahi baduzu ezabatu, baina pertzepzio bat da. Ez naiz oso anbiziotsua. Orain zazpi urte esango nizun ez nuela inoiz pelikula handi batean parte hartuko, eta gero *Handia*-n parte hartu dut eta protagonista izanik. Orain dela bi urte esango nizun ez nuela berriro beste pelikularik egingo, eta orain *El Vasco* egin dut. Sorpresak politak izaten dira. Nik esaten badut esperantza dudala Almodovarrekin edo Bayonarekin lan egiteko, eta gero ez bada gertatzen, frustrazioa sortzen da, eta hori ez da ona. Nahiago dut esatea ez dudala lanik egingo, eta etortzen bada hobe.



ASTEASUKO UDALA



*Martxan ipini
aho eta belarri*

*Bizi euskaraz eta
batu Euskaraldiari!*



Saridunak

Atarikideentzat **2 sarrera bikoitz** ditugu

- Naroa Mendez (Tolosa)
- Iker Luarizaierdi (Tolosa)



Azaroak 19, larunbata · 17:00 · Amurrioko Bañueta kiroldegian

Atarikideentzat **saski bat** dugu

- Ramon Arin (Ikaztegieta)

**Ikaskoliko
Airbaila saskia**



Saria eskuratzeko Ataria jarriko da zuekin harremanetan

Euskal eduki sortzaile berrien kabia

**“ARNASETIK” BIDEOSORMEN
LEHIAKETAREN LEHEN EDIZIOAK
SORMENA SUSTATU DU
EUSKARAREN ARNASGUNEETAKO
GAZTEEN ARTEAN.**

Euskaraz sortuko duten sortzaileak behar ditu euskarak, eta hauen arrastoaren atzetik euskararen arnaguneei bisita egin die “Arnasetik” bideosormen lehiaketak. Arnaguneetan bizi diren 10-16 urte bitarteko gaztetxoek zuzendu zaie, bai eta arnaguneetako ikasleak jasotzen dituzten ikastetxeetako ikasleei ere. Lehiaketaren lehen edizioa arrakastatsua izan da. Adinaren arabera hiru kategorია izan ditu lehiaketak, eta kategoría bakoitzean erronka bati erantzun behar izan diote, guztiak euskararekin eta arnaguneetako hizkuntza-ohiturei zein bizipenei lotuak.



**10-16 urte bitarteko gaztetxoek
zuzendu zaie.**

**99 lan jaso ditu epaimahaiak eta
kalitatea azpimarratzekoa izan da.**

**Arnasa Gara ekimenak
arnaguneetako gazteei
esperientzia berriak eskaintzen
jarraitzeko asmoa du.**

Sari banaketa

Julen Portillo euskal eduki sortzailea izan zen gidaria, eta Sara Alonso musikariak hiru pieza eskaini zituen teklatuarekin.


Julen Portillo zarautzitarra da, eta Sara Alonso aramaioarra; biak euskaldun sortzaile dotoreak.

Arnasa Gara ekimena euskararen arnaguneen garrantzia gizarteratzeko eta bertako

herritarrek ahalduzko helburuarekin jaio zen, UEMAK, Nafarroako Gobernuak eta Eusko Jaurlaritzak sustatuta. Aurten “Arnasetik” sormen lehiaketa izan du ardatz ekimenak, eta arnaguneetako gaztetxoek izan ditu jomugan, haien hizkuntza ohituren inguruan gogoeta egiteko eta haien sormena sustatzeko. Izan ere, euskaldun eduki sortzaile gisa ere funtsezkoak dira euskararen biziberritze prozesuan.

Info gehiago: www.arnasagara.eus

Julen Iztueta
NIRE ZATIEN BILA





Mikel ALTZARIAK

Usabal Industrialdea, Iruña Etorbidea, 22G
20400 TOLOSA - Gipuzkoa T./Faxa: 943 67 55 36

www.mikelaltzariak.com • mikelaltzariak@gmail.com

'50 urte zuekin'



eliker

TOLOSA



hazi



Babarrunaren Festa

Azaroak 19 Tolosa



FINALAURREKOAK

AMURRIO

Azaroak 19, larunbata, 17:00
 Bañueta Kiroldegia

BAIONA

Azaroak 26, larunbata, 17:00
 Lauga

BILBO

Abenduak 3, larunbata, 17:00
 Bizkaia Frontoia

BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA 2022

www.bertsozale.eus
www.bertsosarrerak.eus

Antolatzailea:

Laguntzailea:



AGENDA

OSTIRALA

AZAROAK 18

ADUNA

KULTUR ASTEA

19:30. Euskaraldia herri argazkia.

20:00. Afari merienda.

21:00. Kantu emanaldia, Elordin.

AMASA-VILLABONA

A25. TERTULIA

18:00. Tertulia *Indarkeria obstetrikoa* Nahia Alkortarekin.

AMEZKETA

UDAZKEN KULTURALA

18:00. Judoko kata modalitatearen erakustaldia Unai Regillaga eta Unai Saralegiren eskutik, Larrunarri frontoian.

EUSKARALDIA

18:00. Izena emateko aukera eta txapen banaketa, plazan.

ASTEASU

EUSKARALDIA

17:00. Izena emateko aukera eta txapen banaketa, kultur etxean.

19:00. Garazi San Martinen eskutik bakarrikzeta umoretsua, udaletxean.

GAZTELU

EUSKARALDIA

18:00. Euskal Tribial mahai jolasa meriendarekin batera, Ostatuan.

IBARRA

EUSKARALDIA

Arratsaldean. Izena emateko aukera eta txapen banaketa, plazan.

IKAZTEGIETA

EUSKARALDIA

21:00. Bertso afaria ostatuan. Haritz Mujika eta Eli Pagola.



IRURA

EUSKARALDIA

18:30. Izena emateko aukera eta txapen banaketa, portikoan.

19:00. *Erdaldun berrien kluba*. Bakarrikzeta umoretsua.

ORENDAIN

EUSKARALDIA

17:30. Haurrentzako zinea, udaletxeko ganbaran.

18:00. Helduentzako hitzaldia, *Zer ikusten dute gaztetxoek pantailetan?* Garikoitz Goikoetxea, UEMAko teknikarietan, udaletxeko areto nagusian. Euskaraldiako txapen banaketa ere egingo da.

TOLOSA

EUSKARALDIA

18:00-20:00. Izena emateko aukera eta txapen banaketa. Euskaldiko materiala salgai, pintxoak, edariak.

19:00. Andoni Ollokiegiren kontzertua, Zerkausan.

ANTZERKIA

20:00. Des Aires Teatroren *Apotheosis Buffo*, Topic-en.

KONTZERTUA

22:00. Hidden Garden eta Xabier Crehuet. 8 euro. Bonberenean.

**Elkarrikzeta 26-29 orrietan.*

ZIZURKIL

A25

20:30. Itzal kontzertu akustikoa eta tertulia, A25aren harira. Aiztondoko Neska Gazteak, Aiztondoko Mugimendu Feministak eta Zizurkilgo Udalak antolatuta. Joxe Arregi plazan.

LARUNBATA

AZAROAK 19

ADUNA

KULTUR ASTEA

10:45. Irizar-era bisitaldi gidatua.

18:30. *Aho bete hartz* zirku ikuskizuna, herriko plazan.

20:00. Talo jatea. Afari-merienda eta Ezekiel DJ-a, frontoian.

AMASA-VILLABONA

URTEURRENA

10:00. Goiener, energia berrietagarren sorkuntza eta erosle kooperatibak bere 10. urteurrenako ekitaldia nagusia egingo du, Gurea antzokian.

A25. TAILERRA

11:00. Itaiaren defentsa fisikoko tailerra eta luntxa, frontoian.

BERROBI

IRTEERA

09:00. Autobusa plazatik, Arabara. Añanako Gatz Harana bisitatuko dute, Agurainen bisita gidatua egingo dute eta Dulantzín Berrobiko Txalo-Talo antzerki taldearen emanaldia ikusiko dute.

TOLOSA

BABARRUNAREN FESTA

06:30. Trianguloan, XXVII. Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketaren hasiera.
08:00. Alondegian, XXXIV. Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoaren hasiera, Gure Kaiola elkarteak antolatuta.
09:00-14:00. Trianguloan, Azoka berezia.
10:00. Alondegian, Pintxo Solidarioa dastatzeko aukera Gure Kaiolaren eskutik. Irabaziak KelleSensa GKE senegaldarrarentzat izango dira.
11:00. Trianguloan, dantza ikuskizuna Udaberri eta Uztaritzeko Izartxo taldearen eskutik, eta ondoren kalejira. Benta-zaharreko Mutiko Alaiek taldearen eskutik euskal kantuak zuzenean, eta Isidro Larrañaga musika eskolako trikitilariak, kalez kale.
11:15. Trianguloan, Tolosako Erraldoi eta Buruhandien Konpartsa.
12:00. Trianguloan, Tolosako Babarrunaren Kofradiaren eskutik, Tolosako babarruna jateko aukera.
12:45. Trianguloan, sari banaketak: Tolosako Babarrunaren Ekoizleen Lehiaketako irabazleak eta Gure Kaiolaren Tolosako Babarrunaren Lehiaketa Gastronomikoko irabazleak.
14:30. Tolosako elkarte eta tabernetan babarrun jatea.
18:00. Maria Luisa Agirre Doktorearen Plazan, bertsolariak kalejiran: Andoni Egaña eta Amaia Agirre.
19:30. Kalez kale, Kolean Txaranga.



23:00. Plaza Berrian, Gozategiren kontzertua.

00:00. Kalez kale, Jainekin Txaranga.

DIRU BILKETA

09:30-13:30. Minbiziaren aurka Gipuzkoan elkartearen diru bilketa.

EUSKARALDIA

11:00. Euskaraldian izena emateko aukera eta txapen banaketa, San Frantzisko pasealekuan.

PILOTA TXAPELKETA

16:30. IX. Ogi Berri Torneoa. Migel Soroaren oroimenez, Beotibar pilotalekuan.

TITIRIJAI

18:30. *Leihoak*, Tetaro Paraíso (Araba). 7 urtetik behera. Euskaraz. 40 minutu. Topic-en.

KONTZERTUA

18:00. Nafarroako Down sindromearen elkartearen Motxila 21, Leidorren.

JAIALDIA

19:00. Aloud Jaialdia. Viva Belgrado, Pinpilinpussies, Anteros, Doblecapa Bones of Minerva eta Linalab taldeak Aloud Jaialdia osatzen dute eta Bonberenean izango dira. Sarrera: 10 euro.

TOLOSALDEA

BTN. AUTOBUSA

Harituzek autobusa

antolatu du Amurrioko BTNko saiora joateko.

14:30. Villabonan, kiroldegi aurrean.

14:45. Tolosan, Dama Verden.

14:55. Alegian, Intxurre aurrean.

15:00. Ikaztegieta, Ostatu aurrean.

ZIZURKIL

TXAPELKETA

18:00. Gipuzkoako Harri Handien Txapelketa, Intxaur frontoian. Gipuzkoako Txapleketa 2022. Xabier Aranburu, Iñigo Eizagirre, Jokin Eizmendi, Aimar Galarraga, Urdax Magunazelaia, Manuel Ortiz eta Jon Unanie. Julen Diaz gonbidatuarekin.

IGANDEA AZAROAK 20

ADUNA

KULTUR ASTEA

09:00. Adunako mugarriak mendi ibilaldia, herriko plazatik.

AMASA-VILLABONA

EUSKARALDIA. HAUR ANTZERKIA

17:00. *Batetik bestera* Benetan konpainiaren haur antzerkia. Sarrera 5 euro. Gurean.

BELAUNTZA

ANTZERKIA

18:00. *Zaharrak berri* antzezlan, Txalo-Talo konpainiaren eskutik, elizako teilatupean.

IBARRA

URTEURRENA

10:00-11:30. Ibarra kirol elkartearen 56. urteurrena. Bola eta toka txapelketak, Emeterio Arrese parkean.

A25. ESKOLA

18:00. *Emakume Langileon Eskola: Oh Gu Hemen!* indarkeria matxistaz hausnartzen. Txontxon.

IRURA

JOLASAK

11:00. Haur eta nerabeentzako jolasak. Haurren eta Nerabeen Eskubideen Nazioarteko Eguna ospatzeko jolas eta puzgarriak egongo dira frontoian.

TOLOSA

MENDI IRTEERA

08:00. Tolosako mugak mendi irteera. Pasaban-Herniozabal-Hernialdeko Benta. Izena emateko: *alpinouzturre.eus*, *info@alpinouzturre.eus* edo 943 65 27 89.

TITIRIJAI

18:30. *Gran Mamut*. Markeliñe (Bizkaia). Familia guztiari zuzendurik. Hitzik gabea. 55 minutu. Topic-en.

12:00 / 17:00. *Ici et là*. Cía La Main d'œuvres (Frantzia).

Familia guztiari zuzendurik. Hitzik gabea. 45 minutu. Larunbata eta igandea. Topic-en.

11:00, 12:00, 13:00, 17:00 eta

18:00. *Larun* kale ikuskizuna. Jokai (Nafarroa). Familiari zuzenduta. Hitzik gabea. 60 minutu. Zerkausan.

IPUIN MUSIKATUA

19:30. *Kantik IV*. Ahots Musika Zikloa. *Kristalezko bihotza* ipuin musikatua, 14 urtetik gora. David Azurzaren musikarekin eta Joseba

Sarrionandiaren testuarekin. Hodeiertz abesbatza, Bilbao Kamerata Abesbatza, Garikoitz Mendizabal, Aitor Furundarena, Andoni Aleman eta Eduardo Mokoroa musika eskolako perkusio taldea, David Azurzak zuzenduta. Sarrera 5 euro. Santa Klara elizan.

TOLOSALDEA

BAZKARIA

Elkar ezagutzearen onena. Bizilagunak proiektuaren barruko bazkariak egingo dira herriz herri.

ASTELEHENA

AZAROAK 21

AMASA-VILLABONA

MEMORIA. BIZIKIDETZA. BAKEA

19:00. Solasaldia. *Glencree 10 urte: mendi handi baten igoera.* Edurne Brouard Aldamiz eta Fernando Garrido Velascorekin. Subijana etxean.

ANOETA

GURETZAKO

15:00. Jatorri anitzeko emakumeen bilgunea, udal lokalean.

LIBURU AURKEZEPNA

18:30. *Isildutako eskuak* liburuaren aurkezpena. Jon Abril idazlearekin, liburutegian.

IRURA

SANTA ZEILIA

17:45. Loatzo musika eskolako ikasleak, solasaldi musikatua egingo dute herria girotuz. Plazako arkupean.

TOLOSA

TITIRIJAI

10:00 / 12:00. *Gran Mamut*. Markeliñe (Bizkaia).

Familia guztiari zuzendurik. Hitzik gabea. 55 minutu. Topic-en.

10:00 / 12:30. *Controvento*.

Michele Caffagi. (Italia). Hitzik

gabea. Publiko guztiari zuzendurik. 60 minutu. Leidorren.

20:30. *Kazu*. Singe Diesel (Frantzia). 16 urtetik aurrera. Gaztelaniaz. 60 minutu. Topic-en.

ODOL EMATEA

16:30-20:30. Gipuzkoako odol emaleen odol ematea. Kultur etxeko Topagunean, 1. solairuan.

A25. HITZALDIA

19:00. *Microfisica sexista del poder* hitzaldia, kultur etxean, Nerea Barjola idazle, ikerlari, aktibista feminista eta politologoaren eskutik, gazteleraz.

ZINEMA



GIRASOLES SILVESTRES

Ostirala (19:00) eta astelehena (19:00).

Tolosa, Leidor.



VASIL

Larunbata (19:30 eta 22:00); igandea (19:30) eta astelehena (19:30)

Amasa-Villabona, Gurea.



Itzala

Zein da itzal zuzena?



Margotu

Zeinen ederki hosto artean jolasean! Zoriona erabatekoa izan dadin, eman iezaiozu kolorea irudiari. Erabili margo hori, laranja, berde, gorri eta marroiak.




Eskularru hauen artetik batek ez du parerik. Zein da?

Pareak bai!

ALdeak

Bi garo hauek elkarren ispilu direla ematen du baina badira diferentziak. 9 dira guztira.





Arrotza

Basoan naturalki aurkituko ez genituzkeen sei elementu daude irudi honetan. Ikusten al dituzu?

Hizki-Zopa

Zopa honetan, berriz, basoan naturalki aurkituko genituzkeen elementuak daude, irudian ere ageri dira eta 11 dira guztira.


Seiko Sudokua



Jakingo duzu beharbada, baina hosto eroriek osatzen duten geruza bigun horri ORBELA esaten zaio. Bete lauki zuriak hitz hori osatzen duten hizkien bidez (O, R, B, E, L eta A). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zubate eta area bakoitzeko.

P Z I N T E
N T Z A A R T H
S A S T O W I H I O
S O R R E I S K O S R R
A H O N T Z A U U R T O A E
F N G I P I E I A R O N U R
S O E N E L K L L E R D R B
Q S R M E N B O R R A K D B A I
W A B O E A U T M P E K O I S E H
E S E T G T A N A O Z A A H U H
A I L R O A Z E R I A K K A R D L
S A A A J K O B P A L T E E A
K T L I O T I A T E E S E E A
A L E A N U U N T X I A T A I
A D R U O M A D E K I B Z I
K A T A G O R R I A K I
S A O N E R S L M E O D
O R D O R E I N A
F O H O U S

Dadoa



Bederatzi dado hauetatik bost irudi zabalduarekin bat datoz, eta beste laurak ez. Zeintzuk dira onak? Asmatzea zaila baldin bazaizu, irudi zabaldua paper batean marraztu eta dadoa muntatu.



Aise konturatuko zara zeintzuk diren txarrak eta zeintzuk onak.

Denbora-pasen erantzunak hemen.



«BONBERENEA EZ DA EDOZEIN TOKI ETA ILUSIO BEREZIA EGITEN DIGU GUZTIOI»

OIHANA GARAIALDE ETA MENTXU AIERTZA
MUSIKARIAK



Oihana Garaialde alegiarra eta Mentxu Aiertza tolosarra dira Hidden Garden musika taldeko bi kide. **E. MAIZ**

Hidden Garden musika taldea hasiberria da, eta gaur kontzertua eskainiko du Tolosako Bonberenean, 22:00etan; kideak gogotsu daude zuzenekoetarako, eta dagoeneko diskoa grabatzekotan dira.

Eneritz Maiz Etxarri

Talde hasiberria da Hidden Garden Band, eta bertako kide dira Oihana Garaialde (Alegia, 1987) eta Mentxu Aiertza (Tolosa, 1975). Hugo eta Pablo Casuso amezketar anaiak eta Alberto Yusta andoaindarra dira boskotea. Gaur, Tolosako Bonberenean eskainiko dute kontzertua, eta entsegu gehiago egin dituzte azken asteetan kontzertua behar bezala prestatzeko. Gainera, diskoa grabatzeko lanetan ere ari dira.

Nolatan sortu da Hidden Garden taldea?

Oihana Garaialde. Pablo eta Hugo Casuso bi anaiak hasi ziren, eta taldeko bateria eta gitarra jotzaileetako bat dira. Musika munduan sartzen hasi ziren, eta Hugok eta nik eskolatik betidanik ezagutzen dugu elkar; batera joaten ginen musika eskola berera. Tarte-an sartu nintzen eta hirurok hasi ginen *cover* batzuk egiten. Ni ikasketengatik kanpora joan nintzen, baina ordurako abesti berri batzuen instrumentalak eginak zeuden, baina ahotsik ez geneukan eta baxurik ere ez zegoen. Proiektu solte bat bezala zen. Eta kanpoan nengoen bitartean Mentxu sartu zen Pabloren bitartez taldera.

Mentxu Aiertza. Nik Pablo anaia ezagutzen nuen, bateria jotzailea. Garai hartan biok ikerkuntzan aritzen ginen. Berak bazekien koruan ibilia nintzela eta kantua gustuko nuela. Halako batean komentatu zidan anaia eta biak aritzen zirela, eta abesti batzuk zituztela. Eta egun batean gonbidapena luzatu zidan probatzera joateko, baina denbora pasa zen. Umea izan nuen, Manchesterrera —Erresuma Batua— joan nintzen bizitzera, bizitzan aldaketak izan ziren eta bakoitzak bere aldetik lanean jarraitu zuen, eta berriz topo egin genuen arte. Aukera eskaini zidan berriz, eta Oihana kanpoan zegoen bitartean abesti horiei melodia eta letrak jarritz hasi ginen, eta Oihana etorri zenerako baxu jotzailea ere bagenuen.

Bosgarren kidea ere fitxatu zenuten.

Aiertza. Garai horretan Iñigo Irurzun zen, eta hasiera batean bostok hasi ginen. Maketatxo bat egin genuen, baina gero Iñigok proiektua utzi egin zuen arrazoi ezberdinengatik eta Alberto Yusta sartu zen baxuarekin. Eta jada gauzak gehiago zehazten ari gara.

Zein urtetan hasi zineten jada boskote formatuan?

Garaialde. Ni 2019an itzuli nintzen Alemaniatik, eta gutxi gorabehera orduan izan zen. 2020an grabatu genuen maketa.

Aiertza. Jada pandemia zegoen, eta nola hala grabatu genuen.

Guztiek ez zenuten elkar ezagutzen.

Aiertza. Elkartzen garenean gustatzen zaiguna da musika jotzea eta egitea. Eta nik pertsonalki bai botatzen dut faltan horretaz aparte beste kideak gehiago ezagutzea, baina azkenean toki ezberdinetan bizi gara, eta oso egoera pertsonal ezberdinak dauzkagu. Behintzat musikak elkartzen gaitu eta gustura gaude jotzeko elkartzen garenean. Pixkanaka ari gara elkar ezagutzen.

Garaialde. Prozesua poliki doa; izan ere, elkartzen garenean jotzeko da. Helburua hori da. Diskoaren grabaketako asteburua izan zen lehen aldia mahaian lasai elkarrekin bazkaldu, musikatik harago hitz egin, bakoitzaren gustuak, nondik zatoz, zer egiten duzu... Hori polita izan da eta prozesuaren parte.

Gaur egun ere denok ez zarete eskualdean bizi. Nola moldatzen zarete entseguetarako?

Aiertza. Oihanak ditu arazo gehien.

Garaialde. Ni Algortan bizi naiz, eta ez naiz etortzen astero entseguetara, baina konpromisoa hartu nuen bi astez behin etortzeko, eta bi astez behin elkartu eta jotzeko. Beraiek noizbehinka gelditzen dira gehiagotan.

Aiertza. Niri gustatzen zait astero elkartzea, abeslaria naiz eta gainerakoa ez dut tarterik hartzen kantatzeko. Entsegura joan eta taldearekin abestean, orduan da gehien disfrutatzen dudana. Orduan nahiago dut horretarako elkartu. Oihana datorrenean beti saiatzen gara elkartzen, eta bestela ere bai, baina batzuetan ezinezkoa da.

Beste talderik izan duzue, edo zuen lehenengo esperientzia da?

Garaialde. Hugo eta nik musika eskolako akordeoi banda batean parte hartu genuen, eta jendearen aurrean jotzeko gure lehenengo esperientzia musikala hori izan zela esango nuke. Baina gaur egun egiten dugunarekin ez dago konparaziorik. Gaur egun egiten duguna gehiago gustatzen zaigu eta gure gustuetara datorren estiloa da. Baina pertsonalki eszenatoki batera igotzeko aitzakia bezala esperientzia polita iruditu zitzaidan.

Aiertza. Nire aldetik ez. Koruren batzuetan egon naiz, baina oso amateur moduan eta noizbehinka kontzerturen bat. Ezer berezirik gabe.

Musika gustuko duzue.

Garaialde. Horrek elkartzen gaitu.

Zein motatako musika egiten duzuela esango zenukete?

Aiertza. Taldea Hugo, Pablo eta Oihanak abiatu zuten, eta beti esaten dute rock alternatiboa egiten dugula. Baina hori ere nola definitzen duzun niretzat oso zaila da esplikatzea. Maketa badugu, diskoa grabatu nahi dugu eta proiektu berriak ere buruan edo gogoan ditugu, eta agian pixka bat ezberdinak dira. Guztietan gitarra dago, orokorrean nahiko melodikoa da, eta rocka da.

Sorkuntza lanean aritu zarete.

Aiertza. Hori da. Badira abesti batzuk aurrerago begira sortzen ari garenak. Horietan agian taldeko beste kide

«Ea laster diskoa grabatzen hasi eta udaberrirako esku artean izateko moduan garen»

MENTXU AIERTZA

batzuk gehiago parte hartu dugu. Lehenengoak batik bat Hugok eta Pablok instrumentalki sortuak dira. Gogotsu gaude diskoarekin jartzeko eta hori atera, eta ikusiko dugu. Gauza berrietara ere irekiak gaude.

Garaialde. Dinamika aldatzen ari da. Hasieran agian esango dugu Hu-

gok ekartzen zuela abestiaren %70a eginda, eta horren gainean taldean amaitzen genituen abestiak. Eta orain, Mentxuk berak edo beste norbaitek ekarri dezake ideien bat, eta ideia berri horiekin ari gara kantatuak sortzen.

Zuzenean jotzeko aukerarik izan duzue?

Aiertza. Behin, pandemian ginela oraindik froga moduko bat egin genuen Irurako industriagunean, pabiloi batean. Eta pertsona jakin batzuk baino ez genituen gonbidatu, ez zegoelako aukerarik jende gehiegi elkartzeko. Esperientzia horren ondoren Amaroizko bizilagun elkarteak gonbidatu gintuen beraien kultur aстера. Azkenean iazko abenduan beharrean maiztzean izan zen pandemiagatik atzeratu behar izan zelako. Hor jo genuen lehen aldiz, irekian, oholtza baten gainean, soinu probak eginda, argiak...

Nolako esperientzia izan zen?

Garaialde. Oso positiboa. Uste dut denok nahiko urduri geundela kontzertu profesionalago bat ematen genuelako, baina aldi berean ilusioz beteta ginen.

Aiertza. Nik banuen gogo horrelako gauzeekin hasteko, eta agian beste batzuk gogo baino beldur gehiago

zuten. Eta orain uste dut gogo gehiago sartu zaigula denoi, eta esperientzia berri horien bila goaz.

Duela aste gutxi Tolosako 3 tabernan jotzekoak zineten. Pena bertan behera geratu zelako?

Aiertza. Kontzertu horrekin gora eta behera ibili ginen. Beraiek eskaintzen zizkiguten datetan beti norbaitek ezin zuen, eta kosta ziztzaigun eguna jartzea. Plazan, kan-

«Beldurrarekin, baina oso gogotsu gaudela esango nuke; ni behintzat gogo askorekin nago»

OIHANA GARAIALDE





poan jotzea zen ideia, eta arazoak dituzte bizilagunekin edo bizilagunen batekin. Hurrengo kontzertuak ikusita ondo egongo zen beste esperientzia bat izatea edo aukera izatea, baina ez zen posible izan.

Gaur bertan Bonberenean ariko zarete, eta ez da edozein oholta. Gogotsu zaudete?

Garaialde. Nik uste dut guztiok beldur pixka batekin gaudela. Maiatzean Amarotzen jo izanak pixka bat lagundu digula esango nuke. Momenturen batean aipatu zen Bonberenean jotzeko aukera Amarotzen jo aurretik, eta lehena Bonberenean izateak sortzen zigun halako ezinegon bat. Inoiz zuzenean jo gabe horrelako oholta batera igotzea... baina aldi berean horrelako aukera bati ezin zaio pasatzen utzi. Guztiok egon gara bertan, eta talde askori gustatuko litzaioke bertatik pasatzea. Beldurrarekin, baina oso gogotsu gaudela esango nuke, edo ni behintzat gogo askorekin nago.

Aiertza. Bonberenea ez da edozein toki eta hemen gainera gehienok Tolosaldekoak gara ilusio berezia egiten digu guztioi. Oso eskertuta gaude aukera hau eskaintzegatik.

Nola lotu duzue kontzertua?

Aiertza. Bere burua eskaini zuen lagun bat dugu kontzertuak eta lotzeko, eta saiatzeko esan genion. Bonbereneako kontzertu hau lortu zuen, 3 tabernakoa ere bai, eta oraingoz, jotzeaz aparte ez daukagu beselako azpiegiturarik. Edo ez dugu pentsatu ere egin zer gustatuko litzaigukeen. Non jo edo zer egin ez dugu asko antolatuta.

Aurrera begira, baduzue beste kontzerturik lotuta?

Garaialde. Bai. Abenduaren 17an Alegiako Gaztetxean joko dugu. Hau da, nire bigarren edo hirugarren etxean. Nire herrian da, eta niri pertsonalki ilusio handia egiten dit eszenatoki horretara igotzeak. Beti behetik ikusi izan ditut kontzertuak, eta beti giro ona izaten da. Gainera azken urteetan soinu aldetik kalitate oso ona eskaintzen dutela iruditzen zait. Ekipo be-

rriak eta erosi zituzten eta oso pozik nago bertan jotzeko aukera dugulako.

Ez da edozein oholta hori ere.

Garaialde. Ez, niretzat ez behintzat.

Aiertza. Ezta besteontzat ere.

Nola dago diskoaren kontua.

Aiertza. Maketa bat dugu dagoeneko *Seed* izeneko. Nahi duenak Youtuben edo Bandcamp-en entzungai du eta Hidden Garden Band jarri beharko du. Diskoan abesti berriak egongo dira noski, eta ez dakit maketakoak berreskuratuko ditugun edo birmoldatu. Ag8st8 Estudioseko Iban Martin arduradunarekin grabaketa egitekoak gara. Ea laster hasi eta udaberrirako esku artean izateko moduan garen.

Letrak zuek idazten dituzue?

Aiertza. Bai, letrak gureak dira. Oraingoz ingelesez gehienak, hau da, maketakoak eta diskokoak ere bai, baina hurrengo proiektuetarako jada badauzkagu euskarazko bi. Oihanaren abestiren bat ere badago hortik. Musika estiloarekin askok esan izan didate Erresuma Batuko pub batean pinta bat edaten dardela irudikatzen dutela. Agian, estiloa hori delako oraingoz abestiak ingelesez dira. Baina hori aldatu daiteke eta ikusiko dugu nola ateratzen diren letrak etorkizunean.

Garaialde. Letrak gehienbat Mentxu eta Pablaren artean pentsatuta daude. Pablari filosofia edo abestiaren gairen bat sortzen zaio buruan, eta hori helarazten dio Mentxuri. Bien artean hitz egin, eta magia. Letra hor dago.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro makurra.

Egun osoan zehar hodeiak nagusituko dira eta zaparradak izango ditugu. Zaparrada ugariak eta mardulenak arratsaldean pilatuko dira, litro dezente botako dituelarik. Ez da baztertzen ekaitzak jotzea. Goizean, nahiz eta, une batzuetan zertxobait bustiko duen, ez du euri askorik egingo. Mendebal, ipar-mendebaldeko haize zakarra ibiliko da eta temperatura asko jaitsiko da, 10-12 graduan joaz goia. Azken orduetan elur-maila 1.300 metrotara jaitsiko da.

LARUNBATA

Negu ukituko giroa. Egun osoan zehar hodeiak oso ugariak izango dira, zerua estalirik mantenduko dutelarik eta euri kontuak izango ditugu. Goizean zaparradak ugariak eta mardulak izango dira. Arratsaldean zehar zaparrada hauek urriagoak eta ahulagoak izango dira, gau partean euri gutxiago izango delarik. Goizean ipar-mendebaldeko haize zakarra ibiliko da. Arratsaldean hego-mendebaldera aldatuko da. Tenperatura jaitsi eta ez da 9-10 gradutik pasako. Goizean elur-maila 1.000-1.100 metrotan kokatuko da, baina arratsaldean gora egingo du.

IGANDEA

Giro bustia. Goizean goiz, hodeiak ugariak izanagatik, euri gutxi izango da. Goiz erditik aurrera euritarako joera areagotuko da eta zaparrada batzuk izango dira, non tarteka mardul egingo duen. Arratsalde erditik aurrera atertzera egingo du, gauean ateri geratuko delarik.

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€

45€

51€

Atarikideek

12€

33€

38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

AZAROAK 18, OSTIRALA

TOLOSA

Egunekoa. Lurdes Azpiroz Galarza.
Larramendi, 6 behea 1.
943 67 51 18.

AZAROAK 19, LARUNBATA

TOLOSA

Egunekoa. Iñaki Olarreaga Aranburu.
Korreo kalea, 2.
943 67 01 28.

AZAROAK 20, IGANDEA

TOLOSA

Egunekoa. Leire Andres Morant.
Zaballarreta lorategiak, 1. 943 67 38 49.

AZAROAK 21, ASTELEHENA

TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korreo kalea, 20. 943 67 60 13.

EGUNERO

GAUEKO GUARDIAKO FARMAZIA: TOLOSA.

LEIRE ANDRES MORANT.

ZABALARRETA, 1. 943 67 38 49.

Tolosako merkataritza ikusgarri egitera goaz!



SARIA:

1000 € Tolosako BERRIAlagun komertzioetan gastatzeko

EPEA: azaroaren 14tik 24ra



Nola parte hartu?

BERRIAlagun diren komertzioetan gastua egin eta datuak bete



Zozketa eguna: azaroak 25

Tolosako BERRIAlagun iragarleen zerrenda

ARROPA ETA OSAGARRIAK

BEREZI ARROPA DENDA
NEURRI BEREZIAK
MUGAR LENTZERIA - MERTZERIA (Rondilla)
MAUKA ARROPA DENDA
THE FACTORY
PONPOX OINETAKOAK
AVALON MODA
LIZARRIBAR OINETAKOAK
B & B SINGULAR STORE
TANTAI
F&J ARROPA DENDA
NZB ARROPA DENDA
DANDAKA
ARANGUREN EMAKUMEZKOENTZAT
KARMELE MERTZERIA
JANTZI ZURE ARIMA
M. R. GARMENDIA Y M. S. SUÁREZ
RAINBOW
POTTOKO
LAMAS MODA TOLOSA
NEUDA
HAIZ
ARRETXE
ARANGUREN GIZONEZKOENTZAT
LE TRUE

MG BOUTIQUE
XARMA
VASCONIA
KIMETZ #02 EMAKUME MODA (Nagusia, 21)
TASIA
IMAGEN
MUGAR LENTZERIA - MERTZERIA (Nafarroa etorb.)
KIMETZ #01 GIZONEZKO MODA (Nagusia, 8)
KIMETZ ARROPA DENDA (Korreo, 35)

ETXE APAINKETAK

ARTEKA ESKULANAK
APARICIO TAPIZERIA
MIKEL ALTZARIAK
ONDOLAIN

ETXETRESNAK

LUMEN ILUMINAZIOA
KEY LAN SARRAILGINTZA

INFORMATIKA DENDA

CDI INFORMATIKA

ELIKAGAIK ETA SALTOKIAK

MIREN HARATEGIA
SUPER EKO SUPERMERKATUA
BARRIOLA HARATEGIA
GOIKOETXEA JANARI DENDA
ARANTXA ARRAINDEGIA
ECEIZA GOZOTEGIA (San Frantzisko)
ECEIZA GOZOTEGIA (Rondilla)
XIRIMIRI TXOKOLATEGIA
ZABALA KAFEAK

JOSTAILU DENDA

AMETS JOSTAILU DENDA

OSASUNA ETA EDERTASUNA

EDER BIOESTETIK ZENTROA

KOXKA ILE APAINDEGIA
MAITE LURRIN DENDA
SABERRILURRIN DENDA
ELENA VARELA ILE APAINDEGIA
ZUGAN
ANEKA ESTETIKA
JOSUNE ILE APAINDEGIA
BENEFIT PARAFARMASIA
DENTIEDER
ZEU ILE APAINDEGIA

ZERBITZUAK

RICHARD ARGAZKILARIAK
ARRI STUDIOA
ALDAMA TAPIA GESTORIA

BERRIAlaguna

ISASTEGI SAGARDOTEGIA



Antolatzaileak:

berria

Laguntzaileak:



**Tolosa
& Co**

Babeslea:





BLACK // FRIDAY

2MÓ 199€

PROGRESIBOAK

AZAROA GUZTIAN ZEHAR

San Frantzisko, 23

Tel.: 943 69 84 70

TOLOSA

www.multiópticas.com   

multiópticas
kalitatea - konfiantza - diseinua